



TXIKITTT!

2025eko otsaila 230. zenbakia



KOKO-JANTZIAK PREST?

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	BANAKIXAN.....	10
IKASLEEKIN	4-5	BANAKIXALA	
BERRIKETAN		DENBORAPASAK	11
IKASTETXEETAKO.....	6-7	LEHIAKETA	13
BERRIAK		ZER IRAKURRI	
ESKULANAK	8	BITXIKERIAK.....	14
ERREZETA		IPUINA.....	15
GURE NAGUSIEKIN.....	9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Maketazioa
Ana Aizpurua

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Baserri batean 5 asto zeuden.
Asto batek ihes egin zuen eta
orain Na, Ne, No eta Nu geratzen dira.
Zein falta daaa???



8

- Zer esaten dio o zenbakiak 8-ari?
- A ze gerriko polita!

- Zer da horia barrutik eta beltza kanpotik?
- Txita ninya bat.



99

- Nola esaten da txineraz 99?
- Katxitxien.

- Zer egiten du sagar batek sagarrondo
batean?
- Sa-garra.





Mozorroak jantzi eta gozatzera

Mozorrotzeko sasoia iritsi da. Dantza, salto eta barre egiteko unea ere bai. Hemen dira aratosteak! Juan Antonio Mogel ikastolan egon gara 4. mailako ikasleekin aratosteei buruz berbetan eta argi laga digute eurei asko gustatzen zaizkiela egun hauek.

Eskoletan mozorroak eta dantzak prestatzen ibili dira egun hauek behar bezala ospatzeko, baina hortik aparte ere inauteriez gozatu du Uxue Alberdik, Bittor Unamunok, Iker Olañetak eta Jare Ezenarrok osatzen duen laukoteak. Beno, Jarek esan digu bera asteburuan ez dela egongo, eta Ikerrek ez digu bere mozorroa aurreratu nahi izan: “Sekretua da”, esan digu misteriotsu.

Ziur aski, eurek bezala, herriko ume askok gozatu du egun hauez: egueneko desfile eta erromeriaz, barixakuko Kaldereroen kalejiraz, zapatuko egun guztiko jaiaz, domekako playback lehiaketaz eta pena handiz emango diete agur jaietako martitzeneko Sardinaren Entieruan.

BIDEOA
YOUTUBEN





OI-DA batean

- 1- Aratosteeko zein egun da zure gustokoena?
- 2- Zer nahiago duzu: mozorrotzea ala besteak mozorrotuta ikustea?
- 3- Aratosteak ospatzeko toki bat?
- 4- Gustoko mozorro bat?
- 5- Mozorrotzeko: Aratosteak ala Gau Beltza?



UXUE ALBERDI

- 1- Barixakua.
- 2- Ni mozorrotzea.
- 3- Untzaga.
- 4- India mozorroa.
- 5- Aratosteak.



BITTOR UNAMUNO

- 1- Zapatua.
- 2- Ni mozorrotzea.
- 3- Eibar.
- 4- Ez dakit.
- 5- Gau Beltza.



IKER OLAÑETA

- 1- Barixakua.
- 2- Berdin zait.
- 3- Eibar.
- 4- Sekretua.
- 5- Gau Beltza.

Elkarrizketa dibertigarri
hau ...eta kitto! Euskara
Elkartearen
Tik Tok kontuan duzue!



JARE ezENARRO

- 1- Zapatua.
- 2- Ni mozorrotzea.
- 3- Lekeitio.
- 4- Lapurra.
- 5- Aratosteak.



ITURBURU

Otsaila, urtero bezala, bete-betea etorri zaigu, San Blas egunarekin hasi ginen, errezetak ikasiz eta ohitura zaharrak ezagutuz. 1. ziklokoak opilak egitera ere ausartu ziren, bai eta lortu ere. San Blas opila izugarri ederrak egin zituzten. Santa Ageda bezperan, 6. mailakoak herrian zehar Santa Eskean irten ondoren, arratsaldean 3. zikloak osorik, baserriz baserri abestu zuten eta ondoren Iturburuko jolastokian, denok elkarrekin. Orain Kokodantzen inguruan ikasten ari gara, pertsonaien izenak, koplak, dantzak... Hilaren 22an kaleetan zehar izango dugun ikuskizunaz asko gozatzeko. Eta jada, gure ñauteriak prestatzen ere hasiak gara, mozorroak egin eta pertsonaien istorioa ezagutzen.



URKIZU

Otsailaren 12, 13 eta 14an LH6ko ikasleak Astitzera irteera egin genuen, mendiz inguraturiko paraje paregabea, benetan! Bertako aterpetxean pasa genituen 3 egunak eta ekintza pila bat egiteko aukera izan genuen. Lehenengo egunean, Jentilharribide trikuharrien ibilbidea egin genuen eta izugarri gustatu zitzaigun. Bigarrean, Mendukilo haitzuloa bisitatu genuen guztien gozamenerako! Azkenik, hirugarren egunean, Astitzen bertan, herrikirolak egiteko aukera izan genuen. Hau guztiaz gain, begiraleek beste hainbat ekintza zituzten prest: talde-jolasak, gaueko ekintzak eta hainbat tailer. Irteera ahaztezina guztiontzat!

SAN ANDRES

Otsailaren 4an, Agate Deuna egunaren bezpera, goizeko 10:00etan, San Andres eskolako ikasleak Eibarko kaleetatik abestera atera ginen. Haur Hezkuntzakoek Txomoko parkean primeran abestu zuten. Lehen Hezkuntzako guztiok Errebalera joan ginen abestera. Ondoren, 2. eta 3. ziklokoek San Andres elizako eskaileretan, Untzagako plazan eta Udaletxean abestu genuen. Azkenik, 5. eta 6. mailakoak Zaharren egoitzara abiatu ginen bertan abestera. Izaran jasotako diruarekin gelako "merendola" txiki bat egin dugu.





ARRATEKO ANDRA MARI

Arrateko Andra Mariko LH3. eta 4. mailako ikasleak urtarrilaren 27an Coliseora joan ziren "Friends" filma ikustera. Otsailaren 4an Santa Ageda bezpera eguna ospatzera atera ginen auzoan zehar abestuz. Arratsalde polita pasa genuen! Otsailaren 5ean LH5 eta 6. mailakoek droga-mendekotasun tailerraren 1. saioa izan zuten; aurrerago beste bigarren bat izango dute. LHko 2. mailako Super Akeak lanean aritu dira 2. erronka behar bezala betetzen. Santa Ageda bezperako argazki batekin agurtzen zaituztegu oraingo honetan.



AMAÑA

Agenda 30-eko helburuekin bat eginez, Amañako eskolan elikadura osasuntsuaren aldeko apustua egiten dugu. Horretarako, 3. eta 4. mailako ikasleak elikagai osasuntsuak eta ez osasuntsuak bereizten ikasi dugu. Ondoren, bi astez, gure hamaiketakoak osasuntsuak edo ez osasuntsuak diren aztertzen ibili gara. Egunero datuak jaso, sailkatu eta grafiko erraldoi batean kokatu ditugu. Aukera paregabea izan da bizimodu osasuntsu bat mantentzen saiatzeko eta jaten dugunaren inguruan hausnartzeko eta kontzientzia hartzeko.

ALDATZE

Hilaren 4an, urtero lez, Agade Deuna bezpera ospatu genuen eskolan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lagunak elkarrekin Errebalera bertaratu ginen haren omenez koplak abestera. Makilen kolpeen erritmora lurra esnatu eta udaberriari bide emateko asmoz. Arratsalde zoragarria pasa genuen.



LA SALLE

Gure ikastetxean hamaika ekintza eta bizipen izan ditugu. San Blas egunean, beti bezala, opilak bedeinkatu genituen patioan Ismael apaizaren laguntzarekin. Ondoren, Bakearen Astea izan zen, ostiralean denok elkartu ginelarik ospakizun polit bat egiteko. Emakume Zientzialariaren eta Haurren Minbiziaren Nazioarteko egunak ere presente izan ditugu, gure gogoetak eginez. Eta Izartxo aisialdi taldea ere topera ibili da, Donostiako danborrada ospatzen, Eibar futbol taldeko neskak animatzen eta izugarrizko safari bat antolatzen.



Moldeko ogi-pastel begetala

Bi lagunentzako osagaiak:

- 100 g ganba isats egosi
- Letxuga bihotz 1
- 100 g surimi
- Arrautza egosi 1
- Hezurrik gabeko 8 oliba berde
- Tipulin txiki bat
- 100 g hegaluze kontserban gatza, ozpina, oliba-olio birjina estra, maionesa eta azenario txiki bat.

PAUSOAK:

- 1.- Letxuga garbia eta lehorra, surimi makilatxoak, olibak, tipulina eta hegaluzea txikituko ditugu.
- 2.- Zuritu arrautza egosia eta ganbak eta txikitu horiek ere. Dena nahastuko dugu. Gatz pixka batekin, ozpinarekin eta oliba-olioarekin eta maionesa koilarakada pare batekin onduko dugu.
- 3.- Moldeko ogia maionesa geruza fin batekin pintzelkatuko dugu, betegarriarekin estali eta kontu handiz biribilkatuko dugu
- 4.- Apaintzeko, adibidez, maionesa eta azenario birrindua erabiliko ditugu. Hozkailuan gordeko dugu zerbitzatu arte.



15 alerako osagaiak:

- 120 g txokolate zuri
- 25 g gurin
- 5 ml ezti
- 50 g arto txigortu maluta azukrerik gabe.

Arto maluten eta txokolate zuriaren kurruskariak

TI-TA

Zatitutako txokolate zuria Maria bainurako edo mikrouhin laberako egokia den ontzi batean jarri. Gehitu gurina eta berotu urtu arte, espatula batekin eraginez. Gehitu ezti eta nahastu ondo ore leuna izan arte. Txikitu pixka bat arto malutak eskuekin, oso handiak badira. Bota txokolatera eta eragin ondo zereal guztiak txokolate zuriarekin busti arte. Madalena-molde txikietara bota eta utzi hozten hozkailuan.



Malika amama, Anir eta Aiur 8 eta 5 urteko ilobekin elkartu dugu Arrateko Andra Mari eskolan. Kontu kontari jardun dute hirurek, Txikitto!-k egin dizkien galderen inguruan.

Non jaio zinen?

Malika: Marokon.

Anir / Aiur: Euskal Herrian.

Zein musika gustatzen zaizue?

Malika: Marokoko musika tradizionala.

Anir: Ez dut musikarik entzuten.

Aiur: Patrulla caninarena.

Jatekorik gustukuena?

Malika: Hemengo arraina eta Marokoko "pastela".

Anir: Kebab.

Aiur: Pizza.

Zer ez zenuke sekula jango?

Malika: Kebab.

Anir: Karramarroak.

Aiur: Usteldutako platanoa.

Dirutza bat irabaziz gero, zer egingo zenuke?

Malika: Jatetxe bat irekiko nuke.

Anir: Bidaiatu, pobreei dirua eman eta etxe bat erosiko nuke.

Aiur: Kotxe bat erosi.

Malika, definitu Anir eta Aiur:

Malika: Oso ume onak dira.

Anir, Aiur, definitu amama:

Anir: Oso sukaldari ona da.

Aiur: Oso ondo zaintzen nau.

Zein herrialde bisitatuko zenuke?

Malika: Maroko.

Anir: Maroko.

Aiur: Txina.

Zer kenduko zenuke gizartetik?

Malika: Gerrak.

Anir: Zaborra.

Aiur: Tsunamiak.

Zer gosaltzen duzu?

Malika: Tea eta ogia olioarekin.

Anir: Arrautza, esnea, platanoa.

Aiur: Esnea gailatekin.

Zein ordutan oheratzen zara?

Malika: 23:30ean.

Anir/Aiur: 20:00etan.

Zer hiru gauza eramango zenituzke irla batera?

Malika: Ura, jatekoa eta manta bat.

Anir: Hiru litro ur, itsasontzi bat eta manta bat.

Aiur: Etxe bat, telefonoa eta kotxea.

Animalia?

Malika: Behia.

Anir: Lehoia.

Aiur: Panda hartza.

Asmakizunik onena?

Malika: Argia.

Anir: Argia.

Aiur: Etxeak.

Zerk ematen dizu beldurra?

Malika: Ezerk.

Anir: Tarantulek.

Aiur: Mamuek.

Zer da Eibarko onena?

Malika: Eibartarrak. Asko maite ditut.

Anir: Barrakak.

Aiur: Nire andereño, Karme!



BAÑAKIXAN BAÑAKIXALA



Aries

martxoak 21-apirilak 20

Aste Santuko oporrak laster iritsiko dira, egon lasai. Bitartean gozatu bizitzaz, oso azkar pasatzen da-eta. Zaindu belarriak, minberatuta izan ditzakezu-eta.



Leo

uztailak 21-abuztuak 20

Zoragarria zara, Leo. Falta zaizun gauza bakarra da orain hori zuk sinestea. Bai, ondo entzun duzu: ZO-RA-GA-RRI-A zara! Eta jasoko duzu merezitako saria. Adi egon, begiratu ondo zure ingurura...



Sagittarius

azaroak 21-abenduak 20

Bide onetik zoaz, Sagittarius maitea. Saiatu zaitetz ez okertzen, horrela, zoazen moduan zoragarri zoaz-eta. Baten bat konturatu da horretaz eta adi duzu zuri begira. Zein izango ote da??



Taurus

apirilak 21-maiatzak 20

Aii Taurus maitea... Noiz konturatuko zara ez zarela unibertsoko zentroa?!! Nork bere burua maitatzea ondo dago baina horrenbeste?!! Lasaitu zaitetz apur bat bale? Ezustetxo bat hartu baino lehen.



Virgo

abuztuak 21-irailak 20

Bihurria zara gero e? Baina txantxak eta sustoak eta horrelakoak noizean behin ondo daude baina egunero etengabe? Baten bat nazkatu duzu honez gero. Begiratu ingurura, ia ezustekoren bat etorriko zaizun...



Capricornus

abenduak 21-urtarrilak 20

Datozen asteotan fin ibiliko zara ikasketetan, batez ere hizkuntzekin lotutakoetan. Etxekoak pozik jarriko dira, baina batez ere zuretzako da saria. Lan asko egin duzu eta bada garaia emaitzak jasotzeko.



Gemini

maiatzak 21-ekainak 20

Gemini, Gemini... Zer egingo dut zurekin? Esan arren alperrik! Noiztik ez duzu logela jaso eta txukundu? Edozer gauza atera daiteke logela horretatik. Benga, segi ordenatzera, gurasoak pozik dituzu-eta!



Libra

irailak 21-urriak 20

Zenbat maite dituzun lagunak eta zein ondo zaintzen dituzun... Hori da hori lagun ona izatea. Jarraitu horrela. Munduan ez da gauza hoberik lagun onak izatea baino. Etorriko zaizu saria, ondo merezitakoa gainera.



Aquarius

urtarrilak 21-otsailak 20

Hemendik eta Aste Santura bitartean 5 zenbakiak zorrea ekarriko dizu. Zure kolorea horia izango da eta animalia elefantea. Kontuz litxarreriekin, gehiegi jaten dituzu eta kalte egiteko arriskua duzu.



Cancer

ekainak 21-uztailak 20

Datozen asteotan liluragarri egongo zara: atsegina, sinpatikoa, barregarria, interesgarria... Baina ez utzi "famari" zure nortasuna jaten, entzun? Gozatu une zoragarri horietaz, baina tentuz.



Scorpius

urriak 21-azaroak 20

Ez gorde dena barruan, egidazu kasu. Buelbaka duzun hori kontatuiozu norbaiti, on egingo dizu, benetan. Askatu eta gero lasaitu ederra hartuko duzu. Ume zintzoa zara eta dena irtengo da ondo, lasai egon.



Piscis

otsailak 21-martxoak 20

Piscis, Piscis, Piscis... Zer esango dizut ba... Oso pozik nagoela zurekin! Zintzo portatzen zara, ikasle bikaina zara, lagun onak dituzu, familia zoragarria duzu... Aprobetxatu momentu zoragarri hau, zorionak!

LABIRINTOA



HIZKI-ZOPA

- | | |
|----------------|-----------|
| 1. Bata | 6. Gurtoa |
| 2. Konguroa | 7. Azeria |
| 3. Marrazkilea | 8. Urtoa |
| 4. DeGante | 9. Kaha |
| 5. Igai | 10. Urfa |

H	X	U	A	B	A	A	J	D
A	E	L	E	F	A	N	T	E
R	O	T	A	Z	Z	L	I	X
R	Z	K	L	A	E	L	E	K
A	I	T	E	B	R	O	H	A
Z	Z	J	G	A	I	R	H	N
K	U	K	I	R	A	O	A	G
I	R	A	L	R	E	K	H	U
L	D	I	I	O	A	X	S	R
O	E	U	O	T	Z	F	T	O
A	A	A	U	Z	O	A	A	A
N	I	A	O	I	L	O	A	S
J	A	H	A	I	X	T	N	U




7 DESBERDINTASUNAK



SUDOKUA

5	3		7					
6			1	9	5			
	9	8						6
8			6					3
4			9	3				1
7			2					6
	6				2	8		
			4	1	9			5
			8				7	9

MARGOTU



- Gorria $\rightarrow 330 - 305 = \underline{\quad}$
- Beltza $\rightarrow 8 \times 8 = \underline{\quad}$
- Marnoa $\rightarrow 40 + 41 = \underline{\quad}$
- Horia $\rightarrow 40 : 2 = \underline{\quad}$
- Morea $\rightarrow 5 + 11 = \underline{\quad}$
- Berdea $\rightarrow 375 - 330 = \underline{\quad}$
- Grisa $\rightarrow 16 \times 2 = \underline{\quad}$



LEHIAKETA

10 DESBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **MARTXOAK 10** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa PABLO, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Liburua eta ...eta kitto!-ko bisera zuretako!
ZORIONAK!

**Ana, nora zoaz!** 6 urtetik aurrera

Anaren gurasoek gorra dela uste dute. Baina guztiz kontrakoa!, hain du belarri fina, gai da belarrak hazten denean egiten duen soinua entzuteko. Eta oso trebea da korrika egiten ere! Edonoiz egiten du, abisatu gabe. Nora joango ote da Ana?

**Hiruretatik lauretara** 8 urtetik aurrera

Virgilia Enean, Virgilia Michaels idazlearen etxean, erlojuek ordu debekatua marikatzen dute: goizeko hiruretatik lauretara. Mamuen ordua da. Bere iloba Iria bertan lo egiten geratzen denean, ordu kritikoan esnatzen da beti, eta gauza arraroak gertatzen dira... Egia al da hildakoek ez dutela atsedetik hartzen pendiente dituzten arazoak konpondu arte eta horregatik lagundu behar zaiela?

**Linbo planeta** 10 urtetik aurrera

Inork oroitzen ez duen leku bat, etxe-hondarrez inguratutako toki bat. Hondamendiaren artean gizaki bakarra bizi da: Numa, zortzi urteko neskatila. Goiz batean, jolasteaz inoiz aspertzen ez den lagun bat agertuko zaio: Linbo txakurra. Elkarrekin bidaia ziragarri batean murgilduko dira izarrei jarraituz.


**BITXIKERIAK**

Sukaldariaren txanoak 100 tolesdura ditu, arrautza bat prestatzeko 100 moduak sinbolizatuz.



Balea urdin baten taupada entzun daiteke 3 kilometro baino gehiagora, tamaina izugarria duelako.

Ostrukaren begia garuna baino handiagoa da.





San Andres eskolako ezustea

Pasa den otsailaren 1ean gure eskolako ate irekiak ospatu genituen eta bertan gertatu zena kontatuko dizuegu.

Familia asko hurbildu ziren San Andres eskola gertutik ezagutzera, baina ezusteko batekin topatu ziren: estralurtarrak plater hegalariaekin goiko terrazan lurreratu ziren. Beldurtuta eta triste sentitu ziren egoera hau ikustean, zer egin jakin gabe.



Guraso eta haurrak txokoetan sartzean, aurrez egindako lan guztia lekuz kanpo zegoela ohartu ziren. Adibidez, txapen lekuan, txapak egon ordez, botiletako tapoiak, txokolatea edateko prest egon beharrean, lurretik botata aurkitu zuten eta makillaje txokoan Kokozoro makilatuta aurkitu zuten!!! Txokoak ez zeuden ekintzak aurrera eramateko prest. Egoera arraro eta deseroso honen aurrean, haur bat aho zabalik geratu zen estralurtarrei begira. Haurrek asko maite dute Kokozoro eta hau, makilatuta ikustean honakoa oihukatu zuen:

-AAAH!!! Zer egin diozue Kokozorori? Zertara etorri zarete? Gaur gure ospakizuna da eta zuek eguna hondatzera etorri zarete.

Estralurtarrek honakoa erantzun zioten haurrari:

-Lur planetan ez dugu gure gorputza kontrolatzen eta gauzak egin behar ez diren bezala egiten ditugu, baina gu ez gatoz zuek izorratzera, guk ere zuen egun haundia ospatu nahi dugu.

Umeak, estralurtarren nahia gurekin eguna pasatzea zela konturatu zenean, beldurtuta zeuden gainontzeko familiei barrura sartzeko eskatu zien.

Behin guztiak eskola barruan zeudela, irakasle batek honakoa esan zuen:

-Goazen denok elkarlanean egunaz goatzera, baina horretarako gauza bakoitza bere lekuan kokatu behar dugu eta txokoak ondo antolatu.

Gurasoetako batek ere, Kokozororen itxura berriaz gogoratu eta honakoa adierazi zuen:

-Gure maskota makillatuta dago, beraz, goazen dutxa eder batekin garbitzera!

Guztia bere lekuan kokatu ondoren, guztiek egun polit batez disfrutatu ahal izan zuten elkarlanean eta lankidetzan. Agurra iritsi zen momentuan, hurrengo urtean eguna elkarrekin antolatuko zutela komentatu zuten eta Lurrean beti lagunak izango zituztela esan zieten.



ZU BAI MARGOLARI!

